

GURE HELBURUA:

Musika, gustuen aniztasuna sustatzea da eta bakoitzaren izaera zabaltzea, hau da, bakoitza nahi duen bezalakoa izatea. Bakoitzak duen gustu musikala entzungo du bere gustukoa izateko eta gustora sentitzeko gure diskotekan. Gure diskoteka eremu lasaia izango da zeren eta musika kaskoekin izango denez inork ez du zaratarik aterako eta auzokoek edo ingurukoek kezkarik ez dute izango.

Dibertigarria izango da gugana hurbiltzen diren gazteentzan, astebururo gai desberdinak egongo direlako, mozorratzea adibidez. Gure diskotekara etorriko direnak eroso sentituko dira sortuko dugun giroarekin. Gainera, inor ez da epaitua izango eta denak aske sentituko dira. Jai egunetan edo egun berezietan arropa gaiak izango ditugu jendea mozorrotuta etortzeko eta elkarrekin ondo pasatzeko, mozorro tematika desberdinen festak egiten etabar.

Gela berezi bat egingo dugu jendeak deskantatzeko. Horrez gain, entxufeak egongo dira mobilen bateria kargatzeko eta honekin batera kargadore desberdinak edukiko ditugu mugikor desberdinentzako.

Energia hori lortzeko, eguzki plakak jarriko ditugu diskotekaren zapaian. Horrela kutsadura gutxiago sortzeaz gain baliabide naturalen erabilera sustatzen dugu. Beste aldetik, baliabide desberdin batzuk pentsatu ditugu ingurumena kutsatu ez dadin, adibidez, kontzumizioak lokaletik ezin direla atera kalera, irtetzean lurrera ez botatzeko eta edalontziak plastiko birziklatuarekin egingo direla.

Kaskoak erabiltzeko orduan, pertsona bakoitzak nahi duen bolumenean jarri ahal duenez, soinu maila oso altuek eragindako entzumen kalteak izateko arriskuak murrizten ditugu. Badakigunez, jende askori musika berria aurkitzea gustatzen zaiola, gune oso baliagarria izango da horretarako, kaskoetan aukera desberdin infinituak egongo baitira.

Gure proiektua gurasoentzako pentsatuta dago ere, autobus elektrikoak instalatzea pentsatu dugulako, horrela, gurasoei lasaitasun itzela bermatzen diegu eta gazteei errazagoa egingo zaie gure diskotekara joatea. Asko kostatzen zaie gurasoei gau erdian haien seme-alaben bila joatea, horregaitik, autobus elektriko bat arduratuko da orduro Boroatik Bizkaiko hainbat tokietara joaten.

